

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

466/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Diputatu nagusiarena, 2022ko deialdian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte- berrikuntzako sariak ematen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 18ko 618/2022 Erabakiaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte-berrikuntzako sarietarako deialdia egin zen.

Sari hauetarako hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, erabakia 2022ko abenduaren 12an hartu da, horretarako egindako aktan adierazten den bezala.

Ondorioz, epaimahaiaren epaia ikusirik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehengoa. Ematea gizarte-berrikuntzako sari hauek:

– Lehen saria, 5.000,00 eurokoa, Asociación de reinserción social Sartu Arabari, “Familiklik” proiektuarengatik.

– Bigarren saria, 3.000,00 eurokoa, Aritz Ibañez Ranerori, “Mendialdea Radio” proiektuarengatik.

– Hirugarren saria, 2.000,00 eurokoa, Purísima Concepción egoitzari “Entre Algodones” proiektuarengatik.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako dagozkien zerbitzuek irabazleen alde transferentzia bidez ordain dezatela 10.000,00 euro zenbatekoa, 02402. G/920023/48100060 “Gizarte berrikuntzako sariak” aurrekontu partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.4156).

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkez dakioko ebazpena eman duen organoari, ekintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA